

*“Jende txiki askok, leku txikietan, gauza txikiak eginez, mundua alda dezake.”*

Eduardo Galeano

Lan klasiko honen egokitzapenarekin, pertsona ezberdinei gure bizitzan sartzen uzteaz gain, ongietorria eman nahi diegu. Integrazioaz haratago, inklusioa izango da obraren ardatza. Gizarteratzetik haratago, inklusioa enpatia sozialaren sinonimo gisa ulertuta, pertsonak komunitate batean dituzten premiei erantzuna emateko prest. Guztiok dugu garen bezain ezberdin, gure heterogeneotasunarekin komunitateko kide izateko beharra eta eskubidea, baita gure ezaugarri fisiko ezberdinetan ere, nola ez.

Lengoaia eszenikotara etorrira, zentzu bikoitzeko ekintza inklusioa gauzatu nahi dugu lan berri honekin. Batetik, lehen esan bezala, kulturen eta jatorrien aniztasunari dagokionez, alderdi sozialenetik eta baita politikoenetik ere. Bestetik, gure antzerki-ekintzak gaitasun fisiko eta sensorial desberdinak dituzten pertsonen inklusioan sakondu nahi du, bereziki entzumena azpimarratuz.

### **Dibertsitate funtzionala**

Gure ohiko beste antzezlanetan, generotik harago arreta berezia jarri izan diogu beti lengoaia inklusiboari. Hau da, elkarrizketa unibertsalak sortu nahi izan ditugu, elkarrizketa horietan inor ez da baztertuta geratu izan ez bere genero, baldintza, arraza, zein itxura, edo gaitasun psikiko, fisiko eta sensorialengatik.

Lan honi heltzeko, eskola inklusiboetako esperientziak hartu nahi ditugu adibidetzat, pertsona guztiek diren modukoak izateko eta beren burua ezagutzeko eskubidea izanik. Komunitate bateko kide guztiak, edozein dela ere bakoitzaren kultura, jatorri, ideologia, genero, etnia edo dibertsitate fisiko, intelektual, sensorial edota gaitasun ezberdinetako egoera pertsonala. Beraz, antzezlan berri honekin eszenan soinu-hizkuntza berriekin esperimintatzearen aldeko apustu sendoa egin nahi dugu, modu inklusibo eta baita sensorialean ere.

Oso gertutik ezagutzen dugun entzumen galerak zer dakarren; eta egia esate aldera, gizarte honetan aniztasun funtzional ia ikusezina da, baina pertsona askori eragiten diena. Geure kasura etorrira, arteak eta teknologia eszenikoak pertsona horiek antzezlanaz gozatzeko aplikatuko dira, entzumen murrizaz gain, baita ikusmen urriko pertsonak ere. Era berean, gainerako ikusleak antzezlanari gehitutako milaka ñabarduraz gozatu ahal izango lukete, entzumenaren bidez sentsazio eta emozio berriak sortuko baitira. Hemen hasten da soinu-hizkuntza inklusiboaren esperientzia, integrazio soilaz harago joan nahi duena.

Antzerki ekoizpen berri honetarako entzunezko bide berriak garatzen ari gara. Bide berri bat izango da, eszenan gertatutako akzioaren garapenarekin paraleloki egingo du aurrera. Ikuskizuneko eszenen bizkortasuna eta erritmoa nabarmentzen lagunduko du halako teknologiak. Soinua hainbat ñabarduraz eta kolorez beteta izanik, entzuteko paisaia eta soinu abentura ugari sortuko dira.

Ikusmenaren eta entzumenaren arloan zailtasunak izan ditzakeen pertsonak entzumen-baliabide teknikoak izango dituzte ikuskizunaren esperientzia jaso eta handitzeko. Ohiko soinu-efektuez gain, hainbat ahots laguntza gisa gehituko dira, zer eta argiztapenaren ñabardura azaltzeko, edota ikus-entzunezko aipuak, eszena bakoitzaren xehetasunak, jantzitegiaren deskribapena eta baita pertsonaien ekintzak azaldu eta kontatzeko.

Proiektuak duen oinarria teknologikoa izango bada ere, ahalik eta modu organikoenean egingo da, obraren ekintza globalean oztopo izan gabe, soinu-datuen trafikoa behar bezala antolatuz, haien artean talkarik gertatu ez dadin. Lengoia eszenikoaren apustu berri honek dakarren berritasuna, sormenekoa eta teknologikoa dena, itxuraz, ikuskizunerako ekarpen txiki bat izango da, baina, egia esan, ikusle-mota desberdinen inklusioan pauso handia izan nahi du.

entzuketa